Euzkadi

"LORRIN"=LAMIÑIA TA MUTILLA

IPUÑA

(Neure erriko mendigoizale bizkorrari bijotzez.)

Antziña, "Eperlabarreta" eritxon basetxe ederrian, emakume bat seme bategaz bizi zan. Semia, mutil morrosko errimia zan; layetan, bedar ebaten eta enparau lanak bizkor eta ondo egiten bera lakorik an inguruetan etzan. Eta indarketa guztijetan be txalpedun izaten zalako, erri ta erbestekuak "Indartsu" izenagaz ezagutzen eben. Eta guztijak, abo batez esaten eben, alako mutil adoretsurik egundo ezebela ezagutu ta abar.

Illuntze baten, semiak amari esan eutson.

—Ama, bijar goizian Saibi mendira iratan juan biar naz. Eguraldijak antz ona dakar; eta uste dot mendi aretan iria aspaldiko arorik onenian aurkituko dodala. Ta ganera, Urkioleta'ko neska-mutillak be, bijar goizian ei-doiaz mendi orretara ira ebaten; eta neuk be, eurakaz batera ira ebate ta ekartiak egin gura dodaz. Neuretzat, aizkide onak izan dira beti ta...

—Asmu ori—amak erantzun eutson—urrengo asterako atzeratu oba dozu. Entzun dodanez ba, "Lorriñ" lamiñia, ainbeste gurasori negar eragin dautson lamiña ankerra, Salluente'ko artzulo aurreko landatxuan urrezko aulki baten jezarrita, egunokaz egoten da. Ta aren gurari ta asmo guztijak, beti lez, nundik gastiak atzipetu ei-dira. Orregaitik ba, ene semia, basorantza bijar etzaitez abijau... Bestela galdua zara...

Mutillak, amaren berbak entzutian, barre-algara andi bat jaurtin eban; eta irribarrez esan eutson.

—Galdua neu? "Lorriñ" lamiñaren bildurrez nazala uste dozu ala? Nire indartsu espia nun litzake...? ¡Ondiño olakorik!

—Ene semia, indartsua ta adoretsua zaran arren, munduko barri ondiño eztakizu, Mundu onetan ba, jente maltzur asko dago; ta or-emenka sareak agari zabalduaz, gaurko gastiak atzipetuten era bitara diarduе. Indar-bidez ta atsegin bidez. Indarr bidezko soka latzaz arrapau ezin diran gizon senduak, leunkeri ta arigarikerizko ari me, leun-bigunaz, sarritan beinguan lotzen ditubez... kontuz ba maite! Askoren maltzurkerijak luzez azken bakuak dira ta...

—Esan, esan gura dozuna! Lamiña dala-ta, neure asmuetan atzera-mardorik estot egingo ta. Ni bildurtzekorik ondiño ezta jayo; ta jayoko bere ez... Bijar goizian, lamiñia ta sorgin guztijen ganetik mendiratuko naz ta kito.

"Eperlabarreta"ko mutil arro ta eretxijak, bere ama onaren onu on guztijak alde batera itxita, bijamon goizian Saibi'ranza abijau zan. Eta Salluente'ra eldu zanian, artzuluaren aurreko landatxuan "Lorriñ" lamiñiz urrezko aulki eder baten jezarrita ulia orrazten aurkitu eban. "Indartsuk", ikusi ebanekoxe, urrengo aupadia jaurtiñ eutson.

"Lorriñ" lamiñatzarrak
Ertau adorerik
"Indartsu" arrapetako
Eztauko indarrik.

Itzok entzutian, lamiñaren arpegija asarre bizijan jarri zan; eta eskuetan eban orrazi gorrija mutillari amurruz jaurtijaz, abots itzalaz esan eutson.

—¡Mutil arro ta zitala! ¡Indartsua ta adoretsua azan edo ez, illuntzeko ipar-aizia izango dok ziñaldari...

"Indartsu"k, orrazijari polita eretxita, kolkuan sartu eban. Eta kolkuan sartziaz batera paparra erre yakon. Ulu andi bat egiñaz "Ipernuko bitxi madarikatua!" esanda, orratzi bakana errekara jaurtiñ eban. Eta orrazija ureratziaz, errekako ur guztija irakiñ egin zan.

Jazokun onegaz, mutillak, ikera andirik ezeban artu; ta "lamiñaen gauzak" esanda, aurrera jarrai eban, Saibi menditarte. An, egun guztijan, Urkioletako gastiakaz batera ira ebaten ekin eban. Eta illuntzean, Eskumendi ko labar andi bat jezarrita, urrengo abestitxuak abestzen asi zan.

Auzoko neskatillen
Abots gozatsuaz
Ipar-aizia dator
Amets eztitsuaz
Goiko mendijetako
Zelai ederretan
Maitia dantzan dabil
Urrezko landetan.
Eguzki eder orrek
Bi maitale ditu
Eskertxar ankerragaz
Bijak mindu dituz.
Auzoko neskatillen
Abots goratsuaz

... ...
... ...

Abestzen iarduan bitartian, "Lorriñ" lamiñia neska gaste baten itxura ederrian agertu yakon. Eta abots eztitsuaz esan eutson.

—¡Oi "Indartsu", ze ederto zagozan! Illuntzeko ozkiro gozaroan zeure abesti politak atsegingarri yataz. Zeure indar eta adore andijaren ospiak, zeu ezagutzera ekarri nau. Zuri irebaztekorik emen inguruetan be, eztala esaten diardue ta...

Itzok entzutian, "Indartsuk", senetik urtenda lez,. poz-pozik esan eutson.

—¿Nor zara zeu? Eguzkitik illargira ta illargitik eguzkira izan nazan arren, zulako gauza eder eta leunik egundu eztot ikusi. Ortzian, mille izar'en artian bere, zure dizdira politak bijotza atseginez urtuko leuskit... Ipar-aize gozuak mendibaratzetako lora txukunen zundarik gozoenakaz egiñiko ora ederretik sortua dirudizu ta...

—Goiko mendijetako zelai ederretan—neskiak erantzun eutson—dantzatuten dan zeure maitia naiz ni. Mendi-gallur orren ostian da nire biztokija. ¡Oi ze ederra bera! ¡Bertako aiziak, eguzki-egaletik, illargijaren erditik eta izarren artetik leunkiro igaroaz, ametsik zoragarrijenakaz atseginduten gaituz; eta geure bijotzak mitxeletak lez, lorarik lora egaztuaz, bizitza atsegiñ utsa egiten yaku. ¡An bai ederta-suna! Bertako gauzak azaltzeko nire miña elitzake gai... edestija egiteko be, urrezko idazkortza biarko litzake-ta...

Leunkerizko itz onekaz, lamiñak mutillari, eskua luzetuta beragaz juateko esan eutson. Eta mutil illuratua lamiñari eskua emonda, an juan za nsasi ta arantza guztijen ganetik Salluente'ko landatxuarte.

Orduban, landatxua ezti biurtu zan; erretako ura esne; ta arrizko zubi trauzkilla, ostera, loraskua biurtu zan. "Indartsu", lorazko zubija pozik igarotera joiala, "Lorriñ" lamiña ankerrak, errime bultzatubaz artzulo edo koba baltz bildurgarrira, buruz aurrera jaurtiñ eban.

Eta lamiña guztijak orduban, an barruan, makillakaz ta burduntzijakaz zartada ederrak emonaz, bizkar guztija birrindu eutsoen. Eta danak, abo batez, ifiun diran iraiñak egiñaz esan eutsoen.

—Nun dozak indarrok eta adoriok...? Goizian arro-arro jaurtin doan aupadiaren anotsik etxuagu entzuten... Mututu egiñ az ala? Orain ire nagosijak geu gozak; artzuloaren barruan ondo lotua ago ta. Ta aurrerantzian, ire egunoroko janari onena makillia ta atsekabia baño besterik eztok izango...

Ganeko egunetan, Salluente'ko artzulo ingurutik igaroten ziran gastiak, "Eperlabarreta"-ko mutillaren ulu ta negarrakaz nastian urrengo itzok entzuten ebezan.

—Neutzaz, geyegi uste nebalako ta neure ama onaren onu onak aintzat ez artziarren galdu naiz. Eztijak mingotza, loriak arantzia ta une labur batekо atsegiñ zoruak, atsekabe andi ta luriak leporatu eustaz...

Eta gaste askok itz onekaz bildurrez dardar eginda, euren gurasuen esanak zintzo egiñaz, on-onak izateko asmua artzen eben.

MAÑARIKO.

ERIJETATIK

ERMU

¡EUP...!

Mendigoxaliak, Eupada aundi bategaz, nator gaur atal onen bitartez "askatasuna" aldrian izenian ezanagoz zatoz ela mendigoxale guziak, datorren igande'an "Kanpazar" mendi tontorrera.

Eupada au egiten dautsut auzo erri-etako diran, Zaldibar-Durango, Elorrio, Eibar, Zoraluze, Bergara, Arrasate, Elgeta, eta abar-alar, diradeu mendigoxaliera.

Auxe dogu, lendabiziko mendi ibil-kundia antolatu deguna, Kanpazar mendia, datorren igendea; edo illa onen 17'garrena.

Onen ondorez ditugu ganian, Oiz mendi—Deun Eufeme—eta abar mendi pilla eder bat; ongi gomutauko zarie gu, nolan antxinan, ez, izen onegaz baña bai: auspo Segua-gaz, juaten giñan, mendi tontor getzietara, gure osasuna sendotu, eta aberria ezagutzera, guk, mu nai, azaldutzen giñau, zer giñau, eta zer gura giñau. Euzkadi Askatuta.

IZPAR-BELTZA

Jel-aretako bazkide zindua zan Olañeta'tar Estepan (G. B.) igazi dau barrikuan Bilbao-ko Osaetxian il zaigun,. Gorpu onen alde, il otoizketak azpetu zaigun astelenian, omen ziran, guztizko oste aundia bildurrik bertora, atsekabez lagun dizut sendi guziari.

Jel-Batzokiak Jaupa Ixil lategaz, lagundu dio, igaro dan igandean, bere gudari zindua zanari.

Baita ere goiko jaun orak deitu dio, gol denokira Beitia'tar Melkiades-eri, "Otxua" basetxeko zarari; asteartian ospata zan beren gorpu obiraltzia. Alan berdin opa diautet, atsekale osuan sendi danari. (G. B.).

PELOTA TXAPEKELTA

Emengo Jel-batzokiak autalatu lu pelota txapelketa, bi mall'tara. Lelengo mall'kak [illegible]

bost. Igandero yokatuto dira goxeko amakata-tok aurrera; bi partidu jaiko, lenengo-eta bigarrengo mallakuak, partidu bana.

Igazi dan igandean, eman zi'ón ariera yokaturik lendabiziko peloketa eder bat, Gallastegi'tar Josu eta Bengoetxea'tar Gillelma "Txindurri"; aurka Mallagarai'tar Xabier eta Agirre'tar Fabil, ona kirabazo ziotera.

Bigarren mallakuak, au ziran gertu Landa'tar Donato eta Markiegi'tar Luziano, aurka Zabala'tar Agapito eta Ormaetxea'tar Joseba, arek irabazle ziradan; guziak txalo aundiak artu zitulen.

Partidu guzien barri emango dizutet neuk atal ontalik, ¿Ez ote dago iñor, eramoteko berriak erdel-atal-txulan?

Ekin daigun. Arratsero ematen da Ikastolia, gure Jel-aretako gelatxo baten, guztizko gaztedi aundia dator, ikasi nagan. Tamaltsua da, belutxo, gomutan gara, negu gogorrak igazi dausku, baña badauka gu zeri eldu.

BAZKINTZA ARTESKARIARI

¿Ez ote litzake ongi etorriko, eramatia itzaldi bat edo beste? auxe dogu, bear bearrekua eta biarko utzi barik, gaur, egin biar dira onelako gauzak; gaztedija badotorkigu, eta oneri, erakutsi biar yakua, zer dan alertzaletasuna, gu nolan gerau. Euzkadi'n semiak.

Neure eritxia, Okor, edo zuzen, nator gaur azaldutzen, zer egin biar litzaken; egun baten ekarri itz-lari bat edo beste, eta egun erosoena, dala uste dot, igande goix bat. Zulek dozue itza.

JAYOTZA

Gure lagun onek diran, Mallagarai'tar Jagobak, eta Mantxolas'tar Santzeskek, iduki dute morrosko eder bat, ez, arririk ugutzautzian Jose Luis. Aitar ama-bitxiak ziraden, Mallagarai'tar Kostantzi, eta Bergaretxe'tar Begoña.

Aita seme gotiggo.

EUZKEL-ORRATZAK

Zuaz orri, zuaz ona, nai nuz, gaur ikusten da euzkel ikurra, uri onetan ere, guziak duaz ikur ori daruela, eta latez bere, neskatillen artian nago susmaute, ¡zer poza, zer atsegiña, euren bular ganian darue, ¡an emoteko orratz eder ura. Yarraitu aurrera ikur ori eramaten.

Eztaukana, neugana zuzenda bei.

EUGABI-ZALIETZAZ

Nere askenengo idazkian, egindutzen neutsun, nalan nere urrengo zatijan, etorriko nintzala arazu onegaz, baña enaiz eldu au betetera, eta eskier agintzen dautsut urrenguan egingo dodala, argitalduriк neskatillan izenak, eta aldrietako buruak nortzuk dirau.

NASKALDIA

Igaro dan igandian estutu dautsagu gure bastekua aberkide ona dan Ziarsolo'tar Eukeni'ri "Txeru",ri.

Zornotza'tik etorri ta emen ikertu gaitu Agirre'tar Todor'ek.

Madril'en egun batzuk igaro ta, elda yaku ostera bere txokora, gure lagun eta aberkide ona dan, Mantxobas'tar Bruno.

Alan toki aretatik etorri eta yuan da, emen ikertu-rik beren sendia, Izagirre'tar Peli pelotari kementzua, ondo bizi adi.

ERMU-ZALE.

ELEX BURUKO OLARRA

Txadon ganeko galur ganian
Olar bat dago zutik,
bai aldakixue zegaitik?
etsai guztijei arpegi emon
elexa jagotia gaitik.

Bere egoera lerdena da ta
baita argija begija:
burua dauko jagija,
laster ikusten dau nundi datorren
elexiaren etsaija.

Urteten badau egoazia
edo bestetik iparra,
aurka jarten dau paparra:
ezegatik be ez da bildurtzen
txadon ganeko ollarra.

Naiz izan egualdi txarra
txingorra edo eurija,
bardin dotzo eguzkija:
txaunburuan irudija,
beti da agertu, egiz dalako.

Akilon dator ¡par aldetik
itzuli nairik elexa,
¡bai dauko bai egarija!
baña jainkuak jarrita dauko
elexaren oiñ arrija.

Kistarr guztijok jarri gaitian
soñez da gogoz otoitzan,
yaunan esanak bete datezan;
katxin gorriren indar guztijak
alperrak izan ditezan.

GARATE'TAR J. M.

GAMINIZ PLENZIA

JELTZALIEN ITZALDIA

Lengo igandian, bertako Batzoki ederrenan geukan itzaldi eder bat, eta entzutera yente asko etozan. Gela nagosi ixan arren, laster betetu zan batzokija, ta kanpon lotu ber ziren ainbet, arek sutsu itzak entzuteko gurariegaz.

Sartu gintzaranian Batzoki orretan, arratsaldeko seiretan, lenen asi zan itzegiten erderaz erriko semea ta abertzale zintzo dan Bengoetxea jauna, ta beren esakeretan majo egoan. Ederto Joseba Koldobika, erakutsi daigun Aberriagaz gaozela. Gero "Lauaxeta" jauna euzkera garbi ta gozo batean atara eban abotsa bijotzetik itz samur eta indartsuak ikeragarrizko txalok artzen. Ori dok ixan itzlari, baña ¿zelazekua?, egija esateko, eztogu ikusi emetik olako itzlari.

Azken ta erderaz Orueta'tar Joseba egin eban, ta au, beste biok lez ondo-ondo eguan. Irurok irabazi eben txalo asko ta andik, ta gero amaituteko saspi ta erdi inguruban, danok afez ganian ta txapela barik abestu eben euzko-abendearen erreserkija.

Astar'ten EUZKADI'ko Banakolea, gura dot esan Idazkolea, diño poztuten dala Gaminiz'ko abertzaletasuneaz, ta guk esan ber dotzet, uri guztija onek, ondo ikusten daula Aberija'ren aldez lanak.

Ba'dakizue gaministarrak, Orueta jauna esan ebana: "Euzko guztijaren Aberri bakarra, Euzkadi da". Ori zetan esan be ez.

UGARTE'TAR JULEN'EK

Oingotan izkiz andijegaz etorri bez leuke abertzale orren ixena ¿Zenbat lan in ta itxen dau Euzkadi aldez? Berakatik dekogu gaur Batzoki ederrenatariko bat, eta berakatik, ba asmua dau, laster ixango da emen euzko-erromeri bat, eta ori laster, arin ixan deula gura geunke; zarrak eta gaztiaren bijotzak poztu daitezelak orrek oituragaz.

Aldi gitxian ipifi dau ezpatadantza-aldra bat, eta orain itxeraten gaoz euzkokastola bat. ¡Aurrera Julen, emen gaoz agundute ko, gaminiz tar gejenak!

ANDRAMARIZ'KO ELIZATXUA

Uste dot ezta ula iñok ingeru onetatik, uaten eztaula sarri eliz zuritu ta polite rretara otoi anbat egitera Gure Edurne a Agirre'ko Anderai, ta ango are onak rtzera landa eder eta orlegi atatik. Baña amal eta motz da, ikusi elizatzuko ormean ta tellatuan dauzen kaltek.

Origatik, euren yabek Gaminitz eta Gorlitz'ko udalak, barristu ber dabe, arilao obeto orrek kaltek. Ni entzun dot rrek kaltek eiten dabenak, an olgaten dabiltzanak arrik eta pelotakaz, dirala. Ori jakin ber dabe elizatzuko agintariak, enetan gora in ezdaijela ostabere bardin, rrek mutil okerrak.

GOIKO-MENDI.

Euzkal Orri onen irakurleak, ain maite daben Izkuntzaren aldez egiñiko agurtzat artuko dabe euzkerazko iragarkiak ipintea. Saleroslеak ulertu bale ondo.

AZALPENAK

Arrizku bat buru ganean daroagu aspaldian: senditik kistartasuna kentzeko alegiñak egiten dabez, umeak lenengoz gaiztoturik. Barriro esan daigun: sendiaren oñarriak zulatuten diñardue; sendiaren iturburuak legortu nairik dabiltz; bizitzak zugaitzaren abarrak kazkada bategaz ebai gura dabez. Gizona izatera iritzi baño len ume izaten dira orok; eta azikera bearra dauko aurrak; gizon egin bear dau, ta ez edozelan, gero zerua irepazi dagientzat izan bear daben legetxe baño.

Iru ate zabaltzen yakoz umeari, iru bazkunetan sartu daitean: sendia, gizartea eta eleizea. Gurasoak beartuak dagoz, ba, aurrak kistar legean aziten, onetarako. Jaungoikoak eratua dalako sendia; semeak sortu-azo ta azi dagizantzat.

Baña sendia ezta naikoa bere zeregiñai aurrez-aurre egiteko ta gizartera joten dau, onen laguntza bear dau. Gobernuagandik, semeak azteko laguntza. Laguntza ori irakastola bitartez yatorko. Eta gurasoak gura daben azikerea kistarra dan ezkero, jaurleak beartuak dagoz, kistar-irakastolak eralduteko. Baña geyagorik badago: katoliku uzkurtza egiazkua dan ezkero, gurasoak onelako irakastolak eskatuten dabez, katoliku azikerea ikasi dagien euren aurrak. Jaurleak ba, gura ezta bere, katoliku-irakastolak eratu bear dautsoez gurasoai.

Katolikturar irakastolak, bai, baña ez Irakastola Bakarra. Orretzaz itz egiten daus uke beredin sasi-jakintsuk, eurak bere irakastola oreik ze rdiran eztakien arren. Batzuentzako *Irakastola bakarra* neska eta mutillak alkarrekin eukitea da; beste batzuentzao aberatzak eta txiroak batuta egon daitezala. Oneik ume guztientzako ikastarau bardiñak ipintea; areik, ostera, irakastolak Gobernuaren menpean eukitea.

Ulertu gadizan, katolikuak: *Irakastola Bakarra*'tzaz itz egiten dauskuenean, erkalde bateko ume guztiak era batera azitea azalduten dabe. Baña zer izango da orduan ume txiroetzaz? Zumrak eztiran umeak zoritxarrekoak ixango dira benetan. Zenbat ume jaurtiko dabez Irakastola bakarrean gura daben elburura elduten ezpadira.

Bildur izan leiteke oldoztutea be. Bardintasuna gura dabe—asikeran ezpada be.—Zetarako? "Azikera bardiña guztiak euki dagien eta gizon danak oncla aurreratu daitezan gorputzez eta gogoz". Bost urtetik amabirarte zer izango dan erabaki dagiezuela eskatuten dot; zer neskatoentzako, eta gustiak bardiñak baliran azi dagizuezala Erkaldeko txindien kontura, eta gustiak Bardintasunaren babespean: yantzi bardiñakaz, yakera bardiñakaz eta arazo bardiñakaz. Auxe eskatuten eutsoen Robespierre jaunak 1793'gko., garrilla'ren 15.an erkaldeko burual. Baña ixillean esan daigun Robespierre jaunak ez eukola semerik.

Ez, Bizkai'ko gurasoak katoliku Irakastolak, Eleizeak gura dabezan erakoak gura dabez euren aurrentzako. Orregaitik kistarrak dagien guztia—XI Pi doipuruarekin esango dogu, —kistar irakastolak eratutako gauzarik onena da ta Katoliku Ekintzari yagokona. Geure biotzak maite dauz eta goralditen dauz laterri askotan irakastola onetzaz lan dagienak, kistartasunari ez yagoko beste arazo obarik ba-ta.

Katolikutar-Irakastola gura dabenean eta onetzaz lan egitean, *gogor ots egin bear da ta guztiak jakin begie, katolikuak estabela politika gauzarik egiten*, euren barreneko otsari erantzun bear dautsona baño. Laterriko bidetik atara gura dabezalakoa ezta egia, sakona sartu daiten gogo ori jarduten dabelako. Katoliku onena, bidezkua bada, gizonik onena izango da gizarteko arazoetan bere, aberriaren maitalaria, eta jaurlean menpean dagoana, Gobernua edozelakoa izan arren".

Euzkaldun Salerosleai

Idazle gorengo askori zor, euzkel atal onek lortu daben edertasunak iraun dagian EUZKADI onek euzkerazko iragarki edo anuncioak emetik aurrera agertuko dauz. Bazotxak gura daben zatian edo tamañuan eta guradaben eran agertuko dira, baita bakotxak gura daben egunean bere.

Onexek izango dira saneurri edo presiuak:

Illean iragarki bat, lerroko edo lineako, 0,75 laurleko.
Astean iragarki bat, lerroko, 0,50.
Astean iru iragarki, lerroko, 0,40.
Egun oro iragarki bat, lerroko, 0,30.

Guztiak oartuten dagoz iragkerra izan daiten. Orrela luzaroagoan txindi emon bearra bere txiarkia izan daitela lerro gitxikoa, iruan dagiie iragarkiak.

Iragarkiak eztazu zabaldu bearra lerro askotan eukiten, sarri agertzean baño.

EGUNEKUA

EUZKADI'TIK

UDALEN LANA

Euzko Estatutoa udalak eratu bear dabelako asmoa geyenak ontzat artu dabe eta eztaukoz arerijotzat Comision Gestora deritxoen batzakuak baño. Izparringiak atzaldu dabe euren ustia, eta Gazteiz, Donostia, Iruña eta Bilbao'ko guztijak, bi at bakarrik, onen aldez dagoz. Udalik geyenak euren baimena emon dabe, eta Eusko Ikaskuntza ixanen da estatuto ori egingo dabena. Gaur Donostia'n batuko dira Eusko Ikaskuntzakuak eta araruak arin amaitu gura dabez. Orixe eskatuten dautsegu, len-bai-len bukatu dagizala lanok.

Euren begira dagoz udalak, baita erritarrak be, alkartasun batean guztijak osatuteko. Guztijak auteskunde oneitan batuta ikusi gura dauzanak Estatuto au agertu bear dautsoe. Lan bateri baña gagozan, Comisión orreik euren gain artu gura daben Estatuto eratutzia lurpera jausi daitean. Eztogu beste ordezkorik ontzat artzen, geure udalak kendu ezkero. Onei gagozan eta euren aldez buruba jaso daigun.

"AUXUBERRO" ARPIDIA

Sei milla laurleko batu arte arpide au zabalik egon da Aprika'n jaupari ixan nai dabenari ordainduteko. Sei milla laurleko orreik osatuteko zer edo zer biar zan, baña Bilbao'ko abertzale andere batek emon dauz. Saint Pierre jaunari bialduko yako laster ba txinditza au. Ordez bere onespena betor geure errija.

GUZTIJAK BAT?

Auteskunde aurrian danak bat egin biar dabela askori entzuten yako, baña tamalez eztakigu ori egingo danentz. Eragozpen andijak idoroten dira bidian. Gauza gatxa eztala dirudi, len bakalduntarrak, jaimetarrak, fuerutzaaliak ixan diranak Euzko Estatutoa eta Euzko Erkala ontzat artzen badabe. Jeltzaliak indar guztijakin lagunduten dautse Udalai, ezta gauza gatza ba onen ondoen jarrita guztijak bat egitia.

LEKAIDETXIETAN BILDURREZ

Lekaidetxietan bildur galanta ixan zan bart. Gobernadore jaunak ez eguala zetan bildurrik eoki iñuan, baña kalez kale ikusten ziran aldra batzuk gauza ona egiteko aurpegirik ez eukenak. Konbentu geyenetatik lekaide ta lekaimiak urten ziran adizkidien etxeetan lo egiteko.

IZKILLU BILLA

Izkillu billa ibilli ziran bart erritzañak. Koldobikatarren etxera eldu zira an izkillubak eguazalkuan, baña autsa baño ez eben idoro. Deustu'ko Josulagunen etxera be eldu ziran, baña z be ez eben zer aurkitu. Zer uste eta dau gobernadore jaunak, lekaidetxietan izkillubak daguzala edo? Oba komunista barrabasai kenduko baleutskijoez. Konbentubak zainduteko indarrik ba eukola berak, esan eban Martinez de Aragon jaunak, eta uste dogu eztala ezer jazoko.

GIPUZKOA'N

Gudarijak dagoz lekaide etxiak jaboten. Yentiak kalietan dirau lekaimeai er eztegijen egin. Gobernadore jaunak ikertu ebazan konbenturik geyenak ta bildur bage egoteko esan eutsen guztijai. Lekaimiak ezkertu dabe Aldasoro jauna gudarijakin konbetubak zainduten dabezalako.

GAZTEIZ'EN

Arabarrak ixentau dabe Fueruben alderdo batza. Onela guzurtu dabez Comision Gestora orreik egin gura izan dabezanak. Oneixek zurkeztu dabez: Isusi, Apraiz, Agirre, Jeltzaliak, erkaltzaliak eta Ekintzakuak dira ixenta dabezanak.

Gobernubari urruti dazkiz agur egiñik, furubak eskatu dautsez.

ARANTZAZU'N GAUR

Mitin ederra egiteko dira Arantzaru'n jeltzaliak. Ikeragarrizko zaletasuna ikusten da alde orotan, Bedia, Lemona, Zeanuri, Dima eta toki askotatik ara juango dira ba. Guztijai ots bat egin biar yake: bakian eta iñor mindu bage ibilli daitezan. Eztira gaurko egunak gura doguna egitekuak, eta nor zer edozer jazoko balietike geure aurka gingo leukie gobernutarrak.

LUGIÑEN JAYAK

Ixidor deunaren eguna aundikiro ospatu gura dabe lugiñak. Mungia, Begoña eta erri askotan udalaren laguntzagaz sariketa andijak ipiñi dabez. Lurlangillek jai au beti ospatuten ixan dabe ederto, baña aurten iñoiz baño obeto egingo dabe. Alkartuten asi dirala dirudi lugiñak, alkarren lagun ixateko nekazaritatza arazoetan. Alderdirik geyenak aiztuta euki dabez lurlangilleak eta euren aldez eztabe gauza andirik egin. Tamalez ardura geyago artu biarko da lugiñekaitik, eurak baitira Bizkaya'n lurra landu ta euzko usaña zainduten dabenak. Uzkurtza ta oitura onak baserritarren artian estaldu dirala dirudi.

USAURI

Anabitarte'tar Austin idazlari gorenguak Euzkaltzaindiaren sarija irepazi eban irakurgai eder bategaz. Orain irakaurgai ori argitaldu dabe oso txukun. Atsegiñez irakurten da idazti ori, euzkera goxua ta ulerterreza batarabil Anabitarte idazlarijak eta. Ipuñak jakin azkuria piztuten dau eta ataletik atalera arin igaro gurean zabiltz, zetan amaituten dan jakiteko. Irakurgai onelako gitxi dozuz euzkeraz. Erosi ba liburu eder au. Eta Anabitarte lagunak jarrai begi onelako liburubak egiten, gaya badauko ta. Euzkerak eztau sarata rik biar, ezta irrintzirik, liburubak biar dauz buruba jasoko badau.

"PYRENAICA"

Mendigoxaliak asko dozuz Euzkadi'n. Liburu bat argitalduten dabe urtero an ederrakaz. Aurtengo au bkenetan da ederra. Euzkeraz eta erderaz osatuta dator. Euzko artian mendi zaletanik daukonak idatzi dau zer edo zer. Pozik irakurri doguz Euzkadi'ko mendijetzaz Sota, Ayanbe, Larrandi, Altzeta, Igon eta abarrek diñuzenak.

ESPAÑA'TIK

EGUNOTAKO ASTAKERIAK

Errepulikea etorri zanean, errepulikanuak zeruragino yaso eben Españia'ko erria, erri landua zala-ta, Europa guztiko errien eredu zala ta olako bitxikeri batzuk esaten yardun eben. Erri "landu" ori, ondo landubagea ta basatia agertu da.

Lenengo egunetan kordebaga lez geratu zan erri ori aginduera aldatzean, baina orain oartu da, ta su ta gar asi da aukerkeritan. Europa osoaren aurrean ikuskarri ederra emon dau erri landu orrek.

Gobernuak berak egunotan yazokunak ontzat artu dauzanik esatea ez da zillegi, baina alan dirudi alde batera. Eleizak eta komentuak erretzen bake bakean ikusi dauz Madrilgo erriak, batez bere. Argazki edo erretratuetan ez da alango yendetza andirik ageri. Erri zainak yente ori aipatzeko agindua izan ba lebe, gapatak atarutu geikos eben seguru.

Baina okerren okerrena au da: arrastiriko ordu bietan guda-legea edo gerralegea zabaldu, ta seiretan yentea komentuairi su emoten. Ze guda-lege da ori, bi edo iru batean ikusi gaiztakeriak egiten eta ez galazoteko?

Gobernuak bere eskuak motzitu baino ez dau egin, orain ilabete batzuk txinelan aurka ta erri basatiaren alde yartzean. Orain ezin egin bestera, arerioak zer esan bere.

Atzenean agindu ei yako bene-benetan indarrari, gogor yarki daitela biurri aurka. Baina lar berandu da.

Asko agindu deutsoe erri goseari ta basatiari agintaulkira igon baino len. Yente orrek bultz ereginda igon eban gobernuak, eta beetik orruka daragoio eske ta eske. Gobernuak gura izanda bere zelan ixildu yente ori?

Gauza latzak ikusten asi gara. Latzagoak ikusteko gagoz, Ateneo'ko gizon "landu" orreen asmuak yakin doguzanetik.

CAMBO TA VENTOSA POLITICA'TIK ALDE

Bartzelona'tik.—Atara zan susmurra gogortu egin ei da, Cambo'k eta Ventosa'k politikatik aldegiten dabela.

ALICANTE'N EGUNKARIRIK EZ

Alicante'tik.—Andik eta emetik probentzi guztitik barri txarrak datoz, olango ta alango komentu sutan dagozala.

Alicante uri-buruan bertan ez da egunkari edo periodikurik azaltzen. Gudariak kalez kale dabiz aldraka aldraka. Uriz bakean dago.

BESTE KOMENTU BAT SUTAN

Cadiz'tik. — Sanlucar de Barramedan bart Kaputxinuen komentua erre dabe. Dana errauts biurtu dakalte andiak egin dira.

IKASTOLA BARIK

Egunotako zarata dala bide, ume asko ta asko ikastola barik geratu dira, prailleetan ikasten iñarduenak. Irakaskintza ardura daukan Marcelino Domingok eskabidea egin deuso "Ciudad Universitaria"ri, Becquer txabola deritxen amabost alda-etxe aldaurietan banatzeko, ume orreik ikasle barik geratu ez ditezan.

MAURA BERBALAPIKO

Madril'dik.—Maura yaunak berriketariai esan deutse, "Heraldo"k berari ainbat berba ez egiteko adieraro deutsola, ta arrazoe daukola. Aurrerantzean ixilduko ei da.

Fiesta del labrador

Festejos que el Ayuntamiento de la villa de Munguía y el Sindicato Católico Agrícola de la misma celebrarán en honor de su Patrono

A las ocho, pasacalles por la Banda de chistularis de Munguía.

A las diez, misa mayor, con asistencia de la representación del Ayuntamiento y directivos del Sindicato Agrícola.

A la terminación, procesión con la imagen del santo.

Terminados los actos religiosos, por el notable grupo de espatadantza mungitarra se hará una completa exhibición de las danzas del país.

De once a once y media, recepelón, frente al Sindicato, del ganado que asista a la exposición.

A la una de la tarde, banquete popular.

Terminado el banquete, mitin de carácter agrario, participando un representante del Ayuntamiento y varios oradores agrarios.

A continuación del mitin se hará público el fallo del Jurado que intervenga en el Concurso de Ganado Vacuno, e inmediatamente se hará el reparto de premios.

Después, concurso de aurresku y danzas y romería hasta las ocho de la noche.

EXPOSICION DE GANADOS

El Ayuntamiento de la villa de Munguía y el Sindicato Católico Agrícola de la misma, contando con la cooperación de la excelentísima Diputación de Bizkaya y la Caja de Ahorros Bizkaina, y con motivo de la Fiesta del Labrador, ha organizado una Exposición de Ganado Vacuno, que sirva para mostrar los progresos que tan importante rama de la riqueza alcanza en Munguía. Tendrá lugar el día 15 de mayo de 1931.

El Jurado, que se compondrá por los organizadores, se reserva la facultad de declarar desiertos cuantos premios estime no deban ser concedidods, así como la de aumentar los establecidos. Los fallos del Jurado serán inapelables.

El Sindicato Agrícola de Begoña

Con motivo de ser pasado mañana la festividad de San Isidro, Patrono de los labradores, en su honor, y siguiendo tradicional costumbre, el Sindicato Agrícola de Begoña ha confeccionado el siguiente programa:

Mañana, jueves, al anochecer, se dispararán cohetes y luces de bengala en los distintos barrios del término.

El día 15, a las diez menos cuarto, saldrá del edificio social la comitiva para dirigirse a la iglesia parroquial, abriendo marcha la banda de tamborileros, seguida del Cuerpo de guardas rurales en formación, en medio de los cuales se llevará la bandera del Sindicato, seguida de la Junta directiva y demás socios y familias.

A las diez, misa solemne con S. D. M. expuesto, encargándose del panegírico el presbítero don Angel Uribe Salazar.

A continuación se celebrará la procesión con la imagen de San Isidro, a la que dará escolta una escuadra de guardas.

Terminados los actos religiosos, tendrá lugar por dos socios un "aurresku" de honor en la plaza de la República.

A la una, banquete en el espacioso local de su edificio social.

A las cuatro de la tarde, y hasta el anochecer, romería en la plaza de la República, amenizada por una Banda de música y tamboril.

Existe extraordinaria animación en la anteiglesia de Begoña, por lo que es de esperar que todos los actos a celebrar se vean concurridísimos.

Léase EUZKADI